

Alvaro Rabelli Zertu Kultur Elkarteko presidente barriari alkarrizketea

Zertu Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordea barritau zan zemendian. Digitalizazio eta sare sozialakaz BEGITU hartutako bidea laguntzeko eta finantzietako diru iturri handiagoak lortzeko egingo daua lan Zertuk dino Alvaro Rabelli presidenteak. Sasoiotara ekarteko ezinbestekoa zan pausu hori emotea, baina horrek gastu handiak ekarri dituala eta mantentzeko diru gehiago behar dala dino. **6. eta 7. orrialdeak**



Zertu Kultur Elkarteko barritauaren eretxi artikulua

7. orrialdea

BEGITUK 20 urte, aurrera goaz

2002ko apirilean kaleratu eban lehen zenbakia BEGITUk, hilean behin Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetara herriotako informazioa euskeraz etxe guztietara helduarazoteko asmoagaz.

Irudia: Martin Ortega.



Bide luzea egin dau harrezkeroztik, eta gaur ez bakarrik etxe guztietara, pantaila guztietara be ailegetan da BEGITU, 2021eko garagarilean egindako digitalizazioari esker. Preminazkoa zan hori sasoiotara egokitzeko eta onura asko ekarri ditu. Alde batetik, albisteak gertatu ahala emon

ahal diralako, beste batetik, gazteen informazioa ohituretara egokitu eta eurengana ailegau dalako, eta hirugarrenik, Arratiatik kanpo bizi diran arratiarrek, etxean gertatukoaren barri eskuragarri daukielako.

Seguruenik haxe da BEGITUren historian aldaketarik han-

diena eta erabakiorrena, baina BEGITUren historia, beste edozein persona edo herriren historia bezain zoragarria da. Hamar herri txikiren historiaren lekuko izan da-ta BEGITU 20 urtez. Etenbarik hazten doan tokiko hedabide txiki honen barruko historia dakar erreportajeak. **3. eta 5. orrialdeak**



ERROTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

20 urte Arratiari begira daroaz BEGITUk, segidu daigun alkarregaz Arratia eraikiten beste horrenbeste! Zorionak!



Begietara begiratzeko modu bat,
galderak egiteko modu bat,
eskutik heltzeko modu bat,
amets egiteko modu bat.
BEGITU,
Arratia BEGITUteko modu bat.
Zorionak eta urte askotarako.



BEGITU 20 URTE

Iñigo Iruarizaga: "Ezinbestekoa da udalek 2,6 euro ipintea biztanleko, ezpabere BEGITUren proiektua arriskuan egon leiteke"

2001ean, euskaltzale talde batek Zertu Kultur Elkartea sortu eban Arratian euskeraz argitaratutako aldizkari baten hutsunea igarri, eta egitasmo hori zelan mamindu hausnartzeko. Hausnarketa haretatik sortu zan BEGITU aldizkaria 2002ko apirilean. Sortzaileen helburuak, bertako euskeran idatzitako aldizkaria argitaratzea, Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetara heldu arazotea, eta inguruko kulturea suspertutea ziran.

Erredakzinoa

Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zea-nuri eta Zeberioko barriak hilean behin argitaratzen hasi zan BEGITU 2002an. 2008an hamabostekaria izatera pasau zan eta 2009an, *begitu.org* webgunea ipini zan martxan. Bertan, hamabostekariaren pdf.ak jasoten ziran, baina ez ziran albisteak gertatu ahala webgunean argitaratzen. Hori 2021ean heldu zan, *begitu.eus* BEGITU digitalagaz.

Zertu Kultur Elkartea, aldizkaria argitaratzeaz gainera, eskualdeko kulturea bultzatzeko asmoagaz sortu zan eta beste

Euskera eredua Bizkai euskerea izango zala ebatzi eben sortzaileek... beti be, idatzizko erregistro jasoan

kultur ekintza asko egin ditu. Esate baterako, eskualdeko idazleen hamar bat liburu argitaratu ditu, edota 2019an Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketaren ardurea hartu eban eta Igorren eta Lemoan edizino bi antolatu ebazan. Zuzendaritza Batzordetik Arratiako hainbat euskaltzale pasau dira horreek antolatu eta euskerazko hedabidearen proiektuari eusteko. 2022ko zementian, barriztau zan batzordea eta egun, Alvaro Rabelli da Zertu Kultur Elkarteko presidentea; Jasone Aldekoa, presidenteordea; Ainara Arregi, idazkaria; Iñigo Iruarizaga, diruzaina eta Irene Bilbao eta Illart Gumuzio, batzordekideak.

2002-2008: euskaltzale talde baten ametsa paperean gauzatuta

Esandako moduan, 2001ean euskeraren aldeko hainbat militantek Zertu Kultur Elkartea sortu eben, BEGITU aldizkaria argitaratu ahal izateko. "Nagore Amondarain, Urtzi Barrenetxea, Jon Bengoetxea, Garikoitz Etxebarria, Iratxe Etxebarria, Igor Estankona, Kepa Intxausti, Iñigo Iruarizaga, Aritz Zubiate eta beste hainbat -memoria hauskorra da, gehiago izango dira-, eta beti inguruan zirkulu konzentriko guztiak, proiektuaren babesle eta konplizeak: Lander Gurtubai, Juanxu Rekalde, Eñaut Intxaurraga, Kepa Perez Urraza, Juanjo Respaldiza... otuten jataz baita hainbat persona anonimo joan jakuzanak urteokaz, aitortzarik eskatu ez eben heroi kotidianoak: Paula Ateaga, Mari Tere Garay-Yurrebaso... beti lana arintzeko prest, galdurik baina esperantzaturik gengozan ume mokooi txera bat egiteko beti prest. Nik karguetatik eta alkarteetatik eta fokoetatik kanpoko euskaldun horreei deusset kariño handiena, atzera begiratu eta eurretaz nago harroen eta eskertuen. Zertu Kultur Elkartearen arrakastea horixe izanda, konplizidadeak ehuntzea" dino Igor Estankona sortzaileetakoak.

Euskera eredua Bizkai euskerea izango zala ebatzi eben sortzaileek, Labayruren eredua Arratiako aldaera batzukaz arratiarren berbakeratik ahalik eta hurren egoteko; beti be, idatzizko erregistro jasoan. Aldaerok, eskualdeko filologo batzukaz ebatzi ziran.

Arlo profesionalari jagokonean, Iñigo Iruarizaga egon zan hasikeratik kudeaketa lanetan eta lehe-

nengo hiru urteetan Natalia Bilbao egon zan kazetari, gero Garbiñe Intxausti eta 2006ko abendutik aurrera, Bea Azpirik hartu eban kazetari lanen lekukoa.

2008-2021: kultura agerkari-tik informazino hedabidera

2008an, hilabetekaria izatetik, 16 edo 20 orrialdeko hamabostekaria izatera pasau zan eta harrezkerotik, 22 aldizkari argitaratzen dira urteko; garagarrilean eta abuztuan bakarra ateraten da-ta. Etxe guztietara bananduten dira, eta 2018tik, 7.300 aleko tiradea dauka.

Aldizkariak gainera, BEGITUk gehigarri bereziak be atera izan ditu lantzean behin: udan jaien barri emoten dabenak, herrietako azoka egunetan (San Isidroetan Zeanurin, Merkatea egunean...), Euskerearen Nazinoarteko Egunean, Korrikan... Arratia Institutuak 50 urte bete ebazanean, Luis Iruarizagaren 25. urtemugako CDan laguntzaile izan zan, Arratiako Udalen Mankomunitatearen 25. urtemugako gehigarri berezia atera eban, Arratiako Musika Eskolagaz alkarlanean, Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak Musika Eskolaren Historia liburu argitaratu eban edo Mauriziaren gainean be gehigarri berezia atera dau eta beste alkarte batzukaz alkarlana bultzatzea izan da beti asmoa. Izan be, BEGITUk lotura handia dauka Arratiako jentearteagaz eta eskualdean esanguratsuak diran fetxetan, ahalegin berezia egiten dau.

2009ko udan, *begitu.org* webgunea ipini zan martxan. Hamabostekaria izatera pasatzeak eta webgunea eukiteak "egundoko aurrerapena ekarri eban. Hori dala-ta, albiste eta gai gehiagori lekua egiteaz gain, irakurleen fidelizazinoa be irabazi zan. BEGITUk neurri handi baten zan kultura aldizkaria izateari itxi eta eguneroko informazinoa zabaltzeari ekin eutsan" dino Alvaro Rabelli Zertu Kultur Elkarteko presidentea.

Orditik gaur arte, dozenaka kolaboratzailek idatzi dabe eta idazten dabe hamabostekarian. Euren kolaborazinoakaz BEGITU pluralago eta erakargarriago egin da arratiarren berbea jasoz. Iñigo Iruarizagak kudeaketan eta Bea Azpirik kazetari lanetan, osotu eben lantaldea etapa honetan.

2021etik sare sozialetan eta Tokikomeko kide

2021eko garagarriaren 1ean ipini zan martxan *begitu.eus* BEGITU digitala. Asmoa aspalditik egoan arren, 2021eko udara arte ez zan webgune dinamikora saltua egin, BEGITUk eukazan diru sarrerakaz ezin eutsalako aurre egin proiektuari. Baina pausu hori emon ezean, Bizkaiko Foru Aldundiko







dirulaguntzak gitxitzeko arriskua egoan, eta proiektua gauzatu ezkerro barriz, dirulaguntza gehiago eukiteko aukerea. Horregaitik, aurrera egitea ebatzi eban Zertu Kultur Elkarteak eta *begitu.eus* webgunearen proiektua martxan ipini eban.

Hau aurrera aterateko Asier Abrisketa lotu zan ekipora. Harrezkeroztik albisteak gertatu ahal argitaratu eta sare sozialetan zabalduten dira jente gehiagora helduz. Hau mugaria izan zan BEGITUren historian. Ha-ta guzti be, mantenidu egiten da papezkoa. Izan be, papezko BEGITU eta sarekoa osagarriak dira: albiste batzuk, sarekoan bakarrik; beste batzuk papezkoan eta

beste batzuk bietan tratamentu desbardinagaz emoten dira.

Pausu handi hau emoteko laguntza behar eban BEGITUk eta Euskaltzaleen Topaguneak sortutako Tokikom sarean sartu zan. BEGITU Euskaltzaleen Topagunean 2002tik dago eta 2021eko apirilean sartu zan Tokikomen. Izan be, Tokikomek saretuta dagozan hedabideen jarduera esparru komunak kudeatzen ditu; beste batzuen artean, publizidadea eta presentzia digitala. Euskerazko 76 toki hedabidek osotuten dabe sare, alkarregaz, sektorearen behar bereziei modu eraginkorra goan erantzun ahal izateko. Tokikomeko hedabideek zero kilometroko komunikazinoa emoten

Hiru finanziaizino iturri ditu
BEGITUK: dirulaguntzak,
publizidadea eta
Begitu-lagunak

dabe, bertatik bertara lan egiten dabe, errealidadetik hur eta komunidadeagaz konprometiduta. BEGITUk egiten dauan moduan. Tokikom kanala, 22 webgune, 23 aldizkari, 5 telebista eta 8 irrati osotuta dago.

BEGITUREN euskera ereduan be egin zan aldaketatxo bat 2021ean. Izan be, 2021eko abuztuko 366. zenbakitik aurrera, ordura arte erabilitako Arratiako idatzizko tradizioari lotutako, nork plurala -ak eta nori plurala -ai sistema itxi, eta oingo sasoian nagusitutako nork plurala -ek eta nori plurala -ei sistemara pasau zan.

BEGITUK 20 urte bete dituan urtean, Tokikomek 10 urte bete ditu. Urteurreneko ekitaldian, zemendiaren 11n, alkarlanari eta bazkideen ibilbideari emon gura izan eutsan Tokikomek saria. BEGITU be sartiua izan zan beste alkarteakaz batera.

Zertu Kultur Elkarteak barriz, 2022 eta 2023an ondarearen parte diran 12 eraikinen irudiak dakarzan Igorreko Udalak egingako egutegia kudeatu dau. Angel Larrea historialari zeanuriztarrak euren balio historikoagaitik proposatu ditu eraikinok eta Martin Ortega Areatzako ilustratzaileak egin ditu irudiak.

Finanziaizino barik etorkizunik ez

BEGITU, Arratia, Ubide eta Zeberioko informazinoa, hilabete behinetik gertatu ahala emotera pasau da 20 urte honeetan; eta proiektua handitu ahala, handitu da proiektua finantzatzeko diru premina.

Hiru finanziaizino iturri ditu BEGITUk: dirulaguntzak, publizidadea eta Begitu-lagunak.

Dirulaguntzei jagokienean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEGITUren eremuko udalek emoten dabez di-

rulaguntzarik handienak. Proiektua ekonomikoki bideragarria izateko, udal dirulaguntzak, biztanleko 2,6 eurora heldu behar dirala joten dau Iñigo Iruarizaga BEGITUko kudeatzaileak, "ezpabere, proiektua arriskuan egon leiteke".

Baina udalen aldetik erantzun desbardina izan dau eskakizunak. Holan, Areatzak eta Ubidek, esate baterako, 2022an, 2,6 euro biztanleko emon ditue eta Zeanurik, Arantzazuk eta Dimak konpromisoa hartu eben dirulaguntzea handitzen joateko, 2,6ra biztanleko heldu edo behintzat hurreratu arte, baina kasuren baten pausua sano txikia izan da. Beste udal batzuk, Bediak, Dimak eta Lemoak barbarako biztanleko euro bat emoten dabe edo ez dira horretara heltzean. Zeberio barriz, 2020an diru kopuru hori emon baeban be (2,6 euro biztanleko, 2.753,4 euro), 2021ean eta 2022an BEGITU ez dau diruz lagundu.

Publizidadea da bigarren diru-iturririk handiena, eta, gorabeherak egon arren, BEGITUren aurrekontuaren %40 inguru ateraten da hortik. Webgune barrian be ipini ahal izango da publizidadea 2023an, eta kontuan izanda edizino digitalak papezkoak baino irakurle gehiago izaten dituala, hortik diru sarrera barri bat izatea espero da.

Begitu-lagun gehiago egiteko kanpaina be badauka Zertu Kultur Elkarteak. Begitu-lagun egindakoan 11 opari jasoko dauz Begitu-lagun barriak, Zertu Kultur Elkarteak ateraten dituan produktuak doban jasoten dauz eta hamabostero egiten diran zozketetan parte hartzean dau. *Begitu.eus* edizinoan be beste era bateko zozketak be egin dira irakurleen-tzat, diskoak, sarrerak eta abar.

Udalen ekarpenak 2022an. Arratia, Ubide eta Zeberio

Arratia, Ubide eta Zeberio udalen dirulaguntza barik ezinezkoa izango litzateke BEGITU. Arteko Udalak, hasikera-hasikeratik, lokala doban itxi deutso BEGITUri, eta lokalaren erabilerearen gastu guztiak be bere gain hartu dauz. Beste udalek barriz, diruz lagunduten dabe, ez danek bardin, baina eskertzekoa da emoten daben laguntzea. 2021 eta 2022an Zeberio udalak izan ezik, eremuko udal guztiek, gehiago edo gitxiago, lagundu dabe BEGITU.

BEGITUK udalei eskatutakoa eta hartutakoaren artean 15.000 eurotik gorako diferentzia dago. "BEGITUK eskatutakoa hartuko baleu bere proiektua garatu, hobetu eta handituteko aukera parebakoa eukiko leuke, eta honek jausi kualitatibo inportantea ekarriko leuke, bitartean ez da bape be erraza eustea, baina ahalegin horretan segiduko dogu" azaldu dau Iñigo Iruarizaga BEGITUko kudeatzaileak.

Ondoko taulan, herri bakotxari 2022an BEGITUK eskatutakoa (2,6 euro biztanleko), zenbat emon dauan eta horrek suposatzen dauana biztanleko.

ZERTU KULTUR ELKARTEA			
	ESKATUTAKOA (€)	EMONDAKOA (€)	BIZTANLEKO (€)
ARANTZAZU	1.037,40	700	1,75
AREATZA	3.304,60	3.304,60	2,6
ARTEA	Lokala ixten dau	Lokala ixten dau	
BEDIA	2.797,60	1.000	0,93
DIMA	3.827,20	1.300	0,88
IGORRE	11.216,40	10.000	2,32
LEMOA	9.110,40	3.500	0,99
UBIDE	421,2	421,2	2,6
ZEANURI	3.244,80	2.500	2
ZEBERIO	2.828,80	0	0
GUZTIRA	37.788,40	22.726	1,57

0 eta euro 1 artean biztanleko

1 eta 2 euroren artean biztanleko

2 eta 2,6 euroren artean biztanleko

ALVARO RABELLI

"BEGITU barrikuntza bidean sartu da atzen urteotan eta hori da lagunduko doguna"

BEGITU aurrera ateraten duan Zertu Kultur Elkarateak Zuzendaritza Batzordea aldatu dau. Alvaro Rabelli da presidente barria. Berak kontau deusku bizi-bizirik dagoan BEGITUk etorkizunean hartuko duan norabidea eta horretarako gainditu beharreko zailtasunak.

Erredakzinoa

Zertu Kultur Elkarateak Zuzendaritza Batzordea barriztu dau eta zeu zara oin presidentea.

Barriztu behar zan eta egia esan, karguak urte bian behin aldatu behar dirala dino legeak. Gainera, gure kasuan, baegozan kargudun batzuk, itxi egin behar ebenak karguak, euren lanagaz bateraezinak ziralako. Gainera, pandemia urteak izan dira tartean, eta dinamikea asko jatsi da.

Jente barria be hurreratu jaku Zuzendaritza Batzordera: Jasone Aldekoa persidenteordea eta Aina- ra Arregi idazkaria. Gainontzekook postuz aldatu gara. Oin dinamika normal batera etorri gura dogu eta betiko martxea hartu.

2023rako ze proiektu dagoz?

Proiektu nagusia BEGITU ateratea da eta indarrak BEGITU ipiniko doguz. Gainontzeko guztiak etorriko dira jente barriak ekarpenak egin ahala. BEGITU barrikuntza bidean sartu da atzen urteotan eta hori da lagunduko doguna, bide hori egiten. Sareko BEGITU hori XXI. mendeko BEGITU izan daiten. Kanpoan, ekonomia aldetik zailtasunak egon arren, bizi-bizirik dago BEGITU, momentu polit baten.

Horretarako badagoz erronka batzuk. Begitu-lagun gehiago

behar doguz. Nik uste dot lehenengo lana horixe izango dala Begitu-lagun kanpaina martxan ipintea. Bai ala bai lortu behar doguz Begitu-lagun barriak. Sarea behar dogu, Arratiako gizartearen babesa. 2023 urteko ekintza nagusienetako izango da hori.

Erakunde publikoakaz be jarraitu behar dogu, batez be diru-laguntzei begira. Esan barik doa laguntza guztiak eskertzen dirala baina eskatuten doguna danek emongo balebe eta ez litzateke asko izango, egoera hobean egongo ginateke. Udalen dirua beste leku batzuetatik dator, Euskera planetatik be jaso deikie dirua. Biztanleko 2,6 euro eskatuten doguz. Gorabehera handiak dagoz; batzuek gehiago emoten dabe eta beste batzuk oso urrun geratzen dira. Gure ideala da gitxi emoten daben horreek gehiago emotea eta gehiago emoten daben horreek bere horretan jarraitzea; hau dau, parekatzea danak.

BEGITUK badaukala Arratiako gizartearen babesa esango neuke, holan sentiduten dogu erredakzinoan behintzat.

Bai, egia da, BEGITU asko irakurten da. Sarekoan milaka irakurle edo erabiltzaile dagoz eta hori ikaragarria da. BEGITUk Arratia egiten lagundu dau, hori esaterik badago

BEGITU asko irakurten da. Sarekoan milaka irakurle edo erabiltzaile dagoz eta hori ikaragarria da. BEGITUk Arratia egiten lagundu dau, hori esaterik badago



Urterik urte, etxerik etxe, BEGITUk 20 urte. Zorionak!



Burrukea dirua da. Atzen baten, guk aldizkaria debalde emoten dogu, baina debalde... gauzak ez dira debalde egiten. Militantzia izakerea Zuzendaritza Batzordean manteniduten dan arren, BEGITU egiteko langileak dagoz, profesionalak, eta beste gastu asko. Diru publiko barik ez dago egiterik. Begitu-lagunak be oso garrantzitsuak dira eta hori baliabide propioa izango litzateke. Baina udalen eta diputazioaren konpromiso barik ez dago BEGITU ateraterik. Eta nik uste dot faltan balego, benetan faltea nabarituko litzatekela, BEGITUren hutsunea.

Publizidadeak gorabeherak izaten ditu. Batzuetan urte hobeak izaten dira eta besteetan eskasagoak.

Enpresa batzuek lagunduteko, igual ez da momentu oso ona...

Igarri da bai. Dana karutu da eta publizidadean gastetako... Gainera, publizitatea eginda be, esaterako torlojuak egiten dituan enpresa batek ez ditu torlojuak saltzean BEGITUre esker, publizitatea egiten badau, bere irudi korporatiboa erakutsi gura dauhalako izango da.

Horregaitik indar egiten dogu udaletan.

Zelan bizi dozue BEGITU digitalera eta sare sozialetara egindako saltua.

Beharrezkoa zan. Jente gaztea erakarri gura badozu, ezinbestekoa. Irakurle gazteak erakarri behar dira, horreek izango dira-ta etorkizunean irakurle edo erabiltzaileak. Beharrezkoa zan, egin egin dogu, eta emoten dau ondobidean doala. Bide horretatik segiduko dogu.

Momentuz paperezkoari eutsiko deusagu, ze paperezkoa

ez dago ezbaian, baina ikusten da etorkizunean paperak beteko dauala beste eginkizun bat. Informazinoa, albisteak... horreek oso arin sortzean dira, oso arin jasoten dira eta emoten dira. Eta agian paperezkoa beste patxada bat eskatzen daben gauzetarako geldituko da. Baina lehenengotik, daukaguna sendotu behar da; lantaldea, esate baterako. Igaztik jente barria etorri da eta hori guztia ondo bideratu behar da. Hortik aurrera ikusiko da gauzak nondik doazen.

Kultura inguruko ekimenei jago kienean, ikusiko da batzordea batzean danean zer egin. Lehiaketak eta horreek bertan behera geratu ziran eta ez dakit berreskurako doguzan... baina beti sortuko dira gauzak, hemen Arratian mobimentu handia dago-ta.

Aurreko presidente guztien lana gogoratu behar da; Nagore Amondarain, Esti Izagirre, Oihane Barrenetxea eta Irene Bilbaoren lana hain zuzen be.

Oztopoak oztopo, zailtasunak zailtasun, igual beste 20 urte be egingo ditu BEGITUk.

Daukien garrantziagaitik, euskerazko hedabideak lagundu behar dira: etxeetara ailegetan dira, euskerearen normalizazioan lagunduten dabe, euskerearen presentzia handituten dabe...

Eta gertuko hedabideak dira. Nik beti aldarrikatu izan dot komunikabide barik ez dagoala demokraziarik. Informazino eta adierazpen askatasuna da beti barru-barruan sentidu izan dodan printzipio bat. Eta BEGITUk, tokian tokiko hedabidea danez, hori egiten dau. Tokian tokiko komunikazinoa oso esparru inportantea da. Emoten dau hedabide nagusiek dana beteten dabela, eta ez. Behar be ez.



Irabazi dogu

Horixe da oin dala urte bi eskas Zertu alkartean aldarrikatu genduan "Irabazten goaz" haretatik jatorkuna. Orduan aldaketaren aurreikuspena zan. Oingoan, bolada honetan izan diran aldaketei BEGITU aldizkariaren hogeigarren urteurrena gehitu behar deutsegu. Bai, Arratiako euskera aldizkaria oin dala hogeitau munduratu zan horretarako beren-beregi sortu zan Zertu Kultur Elkarteen eskutik, Arratiako euskaltzaleen bultzada txalagarriaren ekimenez. Bejondeiela nonoz ekimen honetan parte hartu izan daben guztiei, bejondeigula geuri be hamabostero BEGITU aldizkaria aurrera aterateagaitik.

Hogeitau urte pasau eta BEGITUk segiduten dau gure etxeetara ailegetan. Nork esango eban kulturara lerratuago sortu zan hilabetekari harek urte luzez iraungo ebanik, sendo iraun be. Tarte horretan euskerazko holango zenbat eta zenbat proiektu sortzean eta atean desagertzen ikusi izan dogu gure inguruan. Bada, BEGITUk unean uneko egoeretara moldatzen jakin izan dauala esan geinke, beti aldaketak eragin ditu aurrera egiteko (hamabostekaria izatera pasau, oingo teknologietara egokitutako BEGITU). BEGITU profesionalizauz joan jaku gaur daukagun komunikazino tresna garatu arte. Baina, hori guztia ezereztuko zan atzean dagoan sare euki barik, Arratiako jente-arteen isla eta ispilua dan sare; hau da, gure Begitu-lagunak, kolaboratzaileak, irakurleak eta enpresa pribaduetatik eta erakunde publikoetatik laguntzen deuskuen horreek guztiak. Danei gure esker ona adierazoten deutsegu.

BEGITUk guretzat daukan garrantzia urrun doa. Ez da edozein komunikabide. Euskerazko tokian tokiko komunikabideok eginkizun jakin eta nabarmen batzuk badaukiezala esan leiteke. Oinarritzko komunikazino beharrianak beteteaz gain, euskerarako tresna normalizatzaileak dira, jente-arte egituratzaileak be badira jente moltso garrantzitsu batek lotura eta atxikimendu estua daukalako komunikabideakazko. BEGITU holangoa da, komunikazino tresna da arratiar, ubidezta eta zeberioztarrentzat, zerbitzu emoilea eta hartu-emonerako esparrua eskaintzen dauana, Arratia bailara eta eskualdea lotu, trinkotu eta egituratzen dauana.

BEGITUk asko emoten deusku, doban emon be. BEGITUk, baina, beti baliabideak behar ditu. Horregaitik, behin eta barriro aitatzen dogu ze garrantzitsua dan guretzat eskualdeko udalen dirulaguntzea. Danek neurri berean lagunduko balebe, BEGITU ekonomikoki lasai ibiliko litzateke hain sasoi gaxa dan honetan. Edozelan be, guk, emondako edozein laguntza eskertu beharra daukagu.

BEGITUren hogeigarren urteurrenagaz batera Zertu alkartera be aldaketak heldu dira. Atzean lotu dira pandemiaren urteak. Urte horreetan, derrigorrez, moteltxo ibili gara BEGITU ez beste ekimen batzuk bete ahal izateko. Oin, Zertuk zuzendaritza barria dauka, jente barria be badaukagu batzordean. Holan, aurrerantzean espero dogu atzera be martxea hartu, beti BEGITU hobetu, eta izenburuko "irabazi dogu" hori posible egitea.



